

## **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

### HARPIDETZA PRIMA

Gure diru sarreretako bat jendeak aplikazioa jeistearen ordezt ordainduko duen diru kantitatea izango da. Aplikazioa jeistea 1,99€ balioko eta hilabetero hilabetero hura erabiltzeagatik 0,90€ ordaindu beharko dira. Hemendik gure diru sarreren %25 lortuko dugu. Prezioa **finkoa** izango da. Aplikazioa jeistea **ordainketa bakarreko** diru sarrera izango da eta hura erabiltzeagatik hilabetero-hilabetero ordaindu behar dena berriz **errepikakorra**.

### AKTIBOEN SALMENTA

Hurrengo diru sarreran liburuak saltzearengandik etorriko dena da. Hau gure diru sarrera nagusia izango da %40 emanaz.

Liburuen prezioa **dinamikoa** izango da, eskaeraren arabera. Liburuen **ordainketa bakarra** izango da noski.

### ERABILERA PRIMA

Liburuen bidalketaz gu arduratuko garenez 250km distantziaren gaineko bidalketak ordainduak izango dira, besteak aldiz muxu-truke (Posta bidezko bidalketa bat izango da).

Honen bitartez gure diru sarreren %10 lortuko dugu.

Ordainketa hau egiten dituzun bidalketen arabera. Prezioak **finkoak** izango dira eta garraio enpresarekin hitzartu ondoren erabakiko diren arren idea printzipala horrela izatea da:

250km gorako bidalketen ordezt 4,99€ ko ordainketa egin beharko da.

500km gorako bidalketen ordezt 7,99€ ko ordainketa egin beharko da.

### PUBLIZITATEA

Gure azken diru sarrera publizitatetik etorriko da, idazle desberdinen liburuak gomendatu eta erakustearen ordainetan irabaziko duguna eta guk salgai ez ditugun liburudenden web-orriak edo izenak erakusten lortuko duguna hain zuzen. Publizitatetik etorriko den dirua ere aldakorra izango da, idazle eta liburu enprekin hitzegin ostean hitzartutakoa. Diru sarreren %30 etorriko da hemendik. Prezioa **dinamikoa** izango da eta **ordainketa bakarra**.

### **Nola ordainduko dute?**

Ordainketa gure aplikazioa kreditu karneteko zenbakia erabiliaz egin ahalko da edo bestela zuzenean kontu korrontetik. "Bizum" izeneko aplikazioaren bitartez ordaintzea ere posible izango da.